Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

3/2026 EBAZPENA

RESOLUCIÓN 3/2026

Espedientea: RMT 1/2026

Expediente: RMT 1/2026

BATZORDEBURUA: María Eugenia Maté Mendieta

PRESIDENTA: María Eugenia Maté Mendieta

KIDEA: Nerea García Rodríguez

VOCAL: Nerea García Rodríguez

IDAZKARIA: Unai Aberasturi Cantera

SECRETARIO: Unai Aberasturi Cantera

informazio publikoa eskuratzeko eskaera onartzen ez duen Lurralde Garapenerako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 16ko 86/2026 Ebazpenaren aurka erreklamazioa jarri du; Bizkaiko Foru

Aldundiko Gardentasunaren Inguruko Erreklamazio Batzordeak —arestian aipaturiko kideek osatua— **EBAZPEN** hau eman du horretaz. María Eugenia Mate Mendieta andreak jardun du hizlari, eta Batzordearen iritzia adierazi du:

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente **RESOLUCIÓN** ante la reclamación formulada por contra la Resolución 86/2026, de 16 de enero, del director general de Desarrollo Territorial, por la que se inadmite a trámite la solicitud de acceso a la información pública. Actúa como ponente María Eugenia Maté Mendieta, quien expresa el parecer de la comisión

## AURREKARIAK

## ANTECEDENTES DE HECHO

1.- 2025eko abenduaren 21ean informazio publikoa eskuratzeko eskaera hau aurkeztu zion Bizkaiko Foru Aldundiari:

1.- El 21 de diciembre de 2025 presentó la siguiente solicitud de acceso a información pública, dirigida a la Diputación Foral de Bizkaia:

*"SOLICITO TODA LA INFORMACION DETALLADA DE QUE HAN HECHO Y QUE ESTAN HACIENDO, DESDE EL 2024 ADEMAS DE GASTAR 9.680€ DEL DINERO PUBLICO EN EL FAMOSO INFORME DE SAITEC, INFORME DE PARTE SOLICITADO A LOS AMIGOS PARA INTENTAR LIMPIAR RESPONSABILIDADES, YA QUE NO SERVIA EL INFORME DE LA ARQUITECTA DEL AYUNTAMIENTO.*
*QUE HAN HECHO Y HACEN CON EL PLAN DE GESTIÓN DEL RIESGO DE INUNDACIÓN 2022-2027, ESTAMOS EN DICIEMBRE 2025, YA MISMO A 2026.*
*Comunidad Autónoma del País Vasco.*
*El Plan Especial por Inundaciones de la CAPV estima conveniente prever que los órganos competentes de los municipios o entidades locales elaboren y aprueben planes de actuación específicos para el riesgo de inundaciones, por lo que facilitan algunas directrices para su elaboración. Las actuaciones fundamentales que debe desarrollar el Plan Local son las siguientes:*
*- Definición del objetivo y alcance del Plan.*
*- Catalogación del territorio de acuerdo con los riesgos de inundación e identificación de elementos vulnerables.*
*- Actuaciones en materia de prevención.*
*- Definición de la estructura organizativa local, tanto ejecutiva como operativa y de los*

*procedimientos a seguir en caso de emergencia (operatividad).*
*- Definición de los sistemas de alerta e información a la población.*
*- Mecanismos de integración en el Plan Territorial de Protección Civil de la CAPV y sistemas de enlace con los CECOPs (Centros de Coordinación Operativa) superiores.*
*- Relación actualizada de recursos y medios.*
*- Mantenimient".*

2.- Lurralde Garapenerako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 16ko 86/2026 Ebazpenaren bidez ez zen onartu, errepikakorra zelako, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22.e) artikuluan oinarrituta, eta 2024tik aurrera egindako informazio xehatuaren eskaerari dagokionez.

2.- Por Resolución 86/2026, de 16 de enero, del director general de Desarrollo Territorial se inadmitió por reiterativa basándose en el artículo 22.e) de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia y en relación con la solicitud de información detallada desde el año 2024.

Era berean, eskaeraren berri Erandioko udalari helaraztea erabaki zen, eskaerak aipatzen zuen uholde-arriskurako plan espezifikoari buruzko gaiak bere eskumenekoak baitira.

Así mismo se resolvió dar traslado de la solicitud al ayuntamiento de Erandio al ser de su competencia las cuestiones relativas al plan específico para el riesgo de inundaciones a que se refería la solicitud.

3.- Ebazpena urtarrilaren 16an jakinarazi zitzaion eta otsailaren 3an Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez gardentasunaren arloko erreklamazioa aurkeztu zen. Batzordeak 1/26 zenbakia esleitu zion erreklamazio horri.

3.- La Resolución fue notificada a el 16 de enero y el 3 de febrero se presentó a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia reclamación en materia de transparencia, a la que la comisión asignó el número 1/26.

4.- Erreklamazioan, eskabidea transkribatu ondoren, honako hau adierazten da:

4.- En la reclamación, tras transcribir la solicitud, se indica lo siguiente:

*"Y SOLO SE HA TRASLADADO AL AYUNTAMIENTO DE ERANDIO. ESTAMOS EN EL AÑO 2026 Y EL PLAN ES 2022-2027".*

5.- Batzorde honek aurkeztutako erreklamazioaren edukiari buruzko txostena eskatu zion Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari. Lurralde Garapenerako zuzendariordetzak zehatz-mehatz eta luze erantzun dio errekerimenduari, eta berretsi egiten du eskaera ez onartzea bidezkoa dela. Jarraian erantzun horren ondorioak jasotzen ditugu:

5.- Esta comisión solicitó al departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, informe en relación con el contenido de la reclamación formulada, requerimiento que ha sido atendido de forma muy detallada y extensa por la subdirección de Desarrollo de Infraestructuras ratificándose en la procedencia de la inadmisión de la solicitud; recogemos seguidamente sus conclusiones:

*"1. Errepikapena/abusua ( 1/2016 Foru Araua,*

*"1. Reiteración/abuso (art. 22.e NF 1/2016).*

*22.e) art.). Jasota dago interesdunak funtsean bat datorren informazioa eskatu zuela, eta informazioa 2024an jaso zuela (RD 660/2024) eta hiru ez-onartze jaso zituela 2025ean, errepikakorra izateagatik (RD 860/2025; RD 985/2025; RD 1156/2025). IPEE 000110 eskaerak eskaera-multzo bera errepikatzen du, eta, beraz, guztiz bidezkoa da errepikakorra izateagatik ez onartzea.*

*Consta que el interesado ya solicitó información sustancialmente coincidente recibiendo información en 2024 (RD 660/2024) y sufriendo tres inadmisiones en 2025 por reiterativa 8RD 860/2025; RD 985/2025; RD 1156/2025). La SAIP 000110 reproduce el mismo núcleo de peticiones por lo que la admisión por reiteración es plenamente procedente.*

*2. Eskumenik eza/eskuraezintasuna (1/2016 Foru Araua, 22 d) art.): uholdeei buruzko udal-plan espezifikoari dagokionez, Aldundia ez da organo eskuduna eta, sektoreko araudiaren arabera, (903/2010 ED; 197/2023 ED), tokiko betearazpena Udalari dagokio. Ebazpena Erandioko Udalari helarazi zitzaion, administrazioen arteko lankidetza-printzipioa betez.*

*2. Falta de competencia / indisponibilidad (art. 22.d NF 1/2016): respecto del plan específico municipal de inundaciones, la Diputación no es el órgano competente y, conforme a la normativa sectorial (RD 903/2010; RD 197/2023), la ejecución local recae en el Ayuntamiento. La resolución da traslado al Ayuntamiento de Erandio, cumpliendo el principio de colaboración.*

*3. Berriz egitea eskatzen duen eskaera orokorra (1/2016 Foru Araua, 22.c) art.): "2024tik egin duten eta egiten ari diren informazio zehatz guztia" esamoldeak informazioa ad hoc egitea eta informazio heterogeneoa sistematizatzea eskatzen du; gainera, "SAITEC txostenaren" erreferentziak ez du zuzenean aurkitzeko identifikatzailerik ematen. Beraz, ez onartzeko arrazoi gehigarria dago".*

*3. Solicitud genérica que exige reelaboración (art. 22.c NF 1/2016): la expresión "toda la información detallada de lo que ha hecho y están haciendo desde 2024" demanda elaboración ad hoc y sistematización de información heterogénea; además, la referencia al "informe SAITEC" carece de identificadores que permitan su localización directa. Concurre, por tanto, causa adicional de inadmisión".*

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**Lehena.** Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikuluaren bidez sortu zen Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordea.

**Primero.** La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

Foru Arau horren 29.1.1. artikuluaren arabera, 2. artikuluarekin lotuta, Erreklamazioen Batzordea izango da Bizkaiko Foru Aldundiko, foru-organismo autonomoetako, foruko enpresa-erakunde publikoetako, foruko merkataritza-sozietateetako, foru-fundazioetako, foru-partzuergoetako eta zuzenbide publikoko beste foru-erakunde batzuetako (lehen aipatutakoez gain) informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y

ezesten denean aurkezten diren erreklamazioak ebazteko eskumenduna.

otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 18. artikuluan ezartzen du Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela, besteak beste, honako hau: *"a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela-eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera."*

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: *"a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016."*

**Bigarrena.** Instantzia honetan, erreklamaziogileak bere garaian Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako sailari aurkeztutako informazio-eskaera errepikatu besterik ez du egiten, erreklamazioaren oinarri izan zitekeen arau-agindurik aipatu gabe.

**Segundo.** En la presente instancia el reclamante se limita a reiterar la solicitud de información formulada en su día ante el departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, sin referencia a precepto normativo alguno que pudiera sustentar la reclamación.

**Hirugarrena.** Lehen aipatutako otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauak 18.1. artikuluan aitortzen du pertsona fisiko eta juridikoek eskubidea dutela informazio publikoa eskuratzeko. Informazio publikoa, Foru Arau beraren 17.2 artikuluaren arabera, honako hau da: *(...) foru arau honen aplikazio-eremuan sartutako erakundeek duten edozein eduki edo dokumentu, euskarria edozein dela ere, erakunde horiek beren eginkizunen barruan egin, aldatu edo eskuratu badituzte eduki edo dokumentuok (...)".*

**Tercero.** La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, precitada reconoce, en su artículo 18.1, el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, entendida ésta, según el artículo 17.2 de la misma Norma Foral, como: "*( … ) cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones*".

Beraz, arauak informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen eremu materiala mugatzen du, haren kontzeptu zabal batetik abiatuta, baina haren irismena mugatzen du, eta haren izaera publikoarekin lotutako bi baldintza betetzea eskatzen du: (a) foru-arauak behartutako erakunderen baten esku egotea, eta (b) esleitu zaizkion funtzioak eta eskumenak gauzatzean egina edo lortua izatea.

Por tanto, la norma delimita el ámbito material del derecho al acceso a la información pública a partir de un concepto amplio de ésta, pero acota su alcance exigiendo la concurrencia de dos requisitos vinculados con su naturaleza "*pública*": (a) que se encuentre en poder de alguna de las entidades a las que la Norma Foral obliga, y (b) que haya sido elaborada u obtenida en el ejercicio de las funciones y competencias que tiene encomendadas.

**Laugarrena.** Kasu honetan, Erandio udalerrian

**Cuarto.** En este caso se solicita "toda la

itsasadarraren inguruan bulebarra eta zubia egiteko obrekin lotuta 2024tik egin denari eta egiten ari denari buruzko "informazio guztia" eskatzen da eta, ulertzen denaren arabera, eremuko uholdeei buruzkoa eta, era berean, Foru Aldundiaren eskumenekoak ez diren hainbat plani buruzkoa.

**Bosgarrena.** Errekurritutako ebazpenak ez zuen lehenengo gaia onartu 1/2016 Foru Arauaren 22.e) artikuluan oinarrituta, hau da, errepikakorra edo gehiegizkoa zelako. Ondore horretarako 600/2024 Ebazpena aipatzen zen, eta jaulkitako txostenean irizpide hori indartzen da, 860/2025, 985/2025 eta 1156/2025 Ebazpenei erreferentzia eginez.

Txostenak adierazten du, halaber, formulatutako eskaera hain dela orokorra ezen erantzunak berriz egitea eskatuko bailuke, eta hori ez onartzeko beste arrazoi bat izango litzateke aipatutako aginduaren c) letran ezarritakoaren babesean. Hala ere, errekurritutako ebazpenak ez zuen inguruabar hori aurreikusi.

660/2024, 860/2025 eta 985/2025 ebazpenak errekurritu egin ziren Batzorde honetan, eta Batzorde honek partzialki onartu zuen lehenengoa (8/2024 ebazpena), bigarrena ezetsi egin zuen, Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiak lantze-prozesua amaitu ondoren eskatutako dokumentazioa eman ahal izatea gorabehera (6/2025 ebazpena) eta ezetsi egin zuen hirugarrena (8/2025). Gainera Batzordeak beste bi aldiz eman du bere iritzia: 9/2024 baiespen-ebazpenaren bidez eta 1/2026 ezespen-ebazpenaren bidez, guztiak gai berarekin lotuta.

Azaldutakoagatik uste da behar bezala justifikatuta dagoela [redacted] aurkeztutako informazioa eskuratzeko eskaera ez onartzea, 1/2016 Foru Arauaren 22.e) artikuluak ezartzen duena oinarri hartuta.

**Seigarrena.** Bigarren gaiari dagokionez (EAEko Uholdeengatiko Plan Bereziari, EAEko

información" de lo que se ha hecho y se está haciendo desde 2024 en relación con las obras en ejecución del boulevard y el puente en el entorno de la ría en Erandio y, se entiende, las inundaciones en la zona y, también, sobre diversos planes ajenos a las competencias de esta Diputación.

**Quinto.** La primera cuestión fue inadmitida por la resolución recurrida en base al artículo 22.e) de la Norma Foral 1/2016, esto es, por reiterativa o abusiva, citándose a tal efecto la Resolución 600/2024 y en el informe emitido se refuerza dicho criterio haciendo referencia a las Resoluciones 860/2025, 985/2025 y 1156/2025.

El informe también indica que la solicitud formulada es tan genérica que su respuesta exigiría reelaboración, lo que constituiría otra causa de inadmisión al amparo de lo previsto en la letra c) del citado precepto. No obstante, la Resolución recurrida no contempló esta circunstancia.

Las resoluciones 660/2024, 860/2025 y 985/2025 fueron en su momento recurridas ante esta comisión que estimó parcialmente la primera (resolución 8/2024), desestimó la segunda sin perjuicio de que por parte de la dirección general de desarrollo territorial se facilite la documentación solicitada una vez finalice el proceso de elaboración (resolución 6/2025) y desestimó la tercera (8/2025). Además, la comisión se ha pronunciado en otras dos ocasiones: mediante resolución estimatoria 9/2024 y por resolución 1/2026, desestimatoria, todas ellas relacionadas con la misma cuestión.

Por lo expuesto se estima que está debidamente justificada la inadmisión de la solicitud de acceso planteada por [redacted] al amparo de lo previsto en el art. 22.e) de la Norma Foral 1/2016.

**Sexto.** Por lo que se refiere a la segunda cuestión (la solicitud de información en

Babes Zibileko Lurralde Planari eta Ekintzak Koordinatzeko Zentroekiko lotura-sistemei buruzko informazio-eskaera), errekurritutako ebazpenak ez du inolako gaitzespenik merezi, 1/2016 Foru Arauaren 22.d) artikulua aipatzen duelako eta eskaera Erandioko udalari helaraztea erabakitzeen duelako, gai horretan eskumena duen administrazioa baita.

relación con el Plan Especial por Inundaciones de la CAPV, el Plan Territorial de Protección Civil de la CAPV y sistemas de enlace con los CECOPs), ningún reproche merece la Resolución recurrida al referirse al artículo 22.d) de la Norma Foral 1/2016 y acordar dar traslado de la solicitud Ayuntamiento de Erandio al ser la administración competente en la materia.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren inguruko Erreklamazio Batzorde honek, transkribatu dugun ebazpenean hartutako irizpidea errepikatuz, honako hau erabaki du:

Por todo lo cual, esta Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia, reiterándose en el criterio adoptado en la resolución que hemos transcrito, acuerda:

## EBAZPENA

**LEHENENGOA.** [redacted] Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako saileko Lurralde Garapenerako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 16ko 86/2026 Ebazpenaren aurka aurkeztutako erreklamazioa ezestea, bosgarren eta seigarren oinarrietan adierazitako baldintzetan.

**BIGARRENA.** Ebazpen hau errekurtsogileari jakinaraztea eta Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako saileko Lurralde Garapenerako zuzendaritza nagusiari eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako saileko Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen zuzendaritza nagusiari jakinaraztea.

**HIRUGARRENA.** Ebazpen honek, behin betikoa denak, administrazio-bidea agortzen du. Dena dela, beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Salan, jakinarazpena egiten denetik eta bi (2) hilabeteko epearen barruan.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren (Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasunaren arloko Erreklamazioen

## RESOLUCIÓN

**PRIMERO.** Desestimar la reclamación promovida por [redacted] contra la Resolución 86/2026, de 16 de enero, del director general de Desarrollo Territorial del departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, en los términos señalados en los fundamentos quinto y sexto.

**SEGUNDO.** Notificar esta resolución a la persona recurrente y comunicarla a la dirección general de Desarrollo Territorial del departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial y a la dirección general de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales del departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

**TERCERO.** La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos (2) meses a contar del día siguiente al de su notificación.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento

Batzordearen eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Araudia onartzen duena) 27. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 10. eta 46. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Sin./Fdo.: NEREA GARCIA RODRIGUEZ - 2026-03-13
BATZORDEKIDE TITULARRA
VOCAL TITULAR

Sin./Fdo.: UNAI ABERASTURI CANTERA - 2026-03-13
IDAZKARIA
EL SECRETARIO

Sin./Fdo.: MARIA EUGENIA MATE MENDIETA - 2026-03-13
PRESIDENTEA
LA PRESIDENTA